

Herrera

Herrerako Kilikariak fanfarea kinka larrian dago, jende premian baitago. 1977an sortutako musika taldeak ez ditu une gozoak bizi eta etorkizuna ez da batere itxaropentsua

Larraitz Garmendia

**K**ilikariak urte oparoak izan dituen arren, jende beharrean egon da behin baino gehiagotan. Aurreko estualdietatik ateratzea lortu zuten eta egun ere helburu hori dute. Jende bila dabilta, fanfarea mantentzeko hogeitabost bat lagun behar baitira, baina ez dute jende gazterik aurkitzen. Gainera txaranga ugari sortzen ari da, txaranga bat osatzeko jende gutxiago behar baita.

Hau guztia kontuan hartuta, inguruko fanfareak desagertu egin dira. Tirri Tarra ezaguna, esaterako, beste motako ikuskizunak egiten hasi da. Kilikariak ez du txaranga bihurtu nahi eta ez ditu beste motako eginkizunik egiteko asmorik. Fanfare izaten jarraitu nahi

# Kilikariak fanfarearen doinu tristeak

## Jende berria behar dute taldea desagertu ez dadin



Kilikariak bizi izan ditu une zailak, baina aurtengo egoera inoiz baino larriagoa da.

du, Gipuzkoa mailan geratzen den fanfare bakarra baitugu.

### Hamazazpi lagun

Aurten Kilikariak 17 gazte dabilta baina 40 pertsonekin lan egin izan dute. Jende gutxiarekin lan egiteak arazoak sortzen dizkie, emanaldietara denek joan behar baitute.

Gainera, beste eginkizunak direla eta, jendeak maiz samar uzten du fanfarea. Batez beste, urtero hiru pertsonak uzten dute fanfarea eta bat besterik ez da sartzen. Hau aspaldiko arazoa da,

ke... doan den dena. Fanfareko kideek egin behar duten gauza bakarra larunbatego entseuetara joatea da, besterik ez.

### Diruz ondo

Gezurra dirudien arren, Kilikariak ez du diru arazorik. Urtean zehar egiten dituzten emanaldiekin gastu guztiak estaltzen dituzte. Gainera azken urteetan irabazitakoari esker, entseiatzeko lokala eta gastronomia elkarteak dute.

Orain falta zaien gauza bakarra jendea da. Beraz hamalau urtetik gorako gazteak erakartzeko deia zabaldu dute eta baita leloa asmatu ere: "Lagun giro aproposaren bila bazabiltza eta gainera musikarekin harreman zuzena izan nahi baduzu, zator Kilikariak fanfarera eta gurekin hitz egin. Ez zara damutuko".

Kilikariak fanfarean parte hartzeko 943 400305 telefono zenbakira deitu edota Donostiako 4082 posta kutxatilara (20.017) Herrera ida daiteke.

## Gipuzkoan geratzen den ohiko fanfare bakarra da

baina aurtengo egoera askoz ere larriagoa da

Fanfara bateko partaide izateak alderdi on asko ditu: giroa ezinhobea da, lagunak egiten dira, musika instrumentua jotzen ikas daiteke eta leku asko ezagutu daitez-

# JUANTXO

taberna

**BOKATAK ETA PINTXO EDERRAK!!**

ENBELTRAN KALEA • PARTE ZAHARRA • Tfnoa.: (943) 42.74.05

# JUAN ALMANDOZ

AUTOAREN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATE KONPONKETAK

• PEUGEOT-TALBOT zerbitzua  
• ALFA ROMEO-n espezializatua

Marinelen plaza • Tfnoa.: (943) 45 79 02 eta (943) 45 45 17 • DONOSTIA